

Ziztadak

1

Edozein libururen hasierak sortzen dion urduritasunaz jabeturik, ura irakiten jarri du lapikoan Elenek, geroago hartuko duen infusioa prestatzeko. Literaturaren piztiak ziztatu zuenetik gertatzen zaio edozein liburu hasten duen bakoitzean, tripak nahasterainoko urduritasuna ernaltzen zaiola sabelean, lehen 5-6 orriak aditzeko gaitasunik ez duela nahiz eta behin eta berriz irakurtzen dituen. Pertsonekin gertatzen zaion legez, hain zuzen ere; norbait aurkezten dioten aldiro, urduritasunak jota, automatikoki ahazten du bere izena, edo bestera esanda, ez da entzuteko gai.

Esan bezala, literaturaren piztiak ziztatu zuenetik, orain bost bat urte, harreman oso pertsonala garatu du liburuekin eta duela ez asko, bere barrenak astintzen dituen orotik, poesiarik sakon eta zintzoena hitzez birproduzitzeko saiakera etengabea dabil. Ez da konturatzen baina, saiakera bakoitzeko pixka bat biluzten dela eta negua ate joka duela Bizkaiko barnealdean. Ez da konturatzen ezta, poesiak hartzen dituen forma ezberdinak ezin direla beti letra bidez erditu. Etorkizun hurbilean (zein da denbora-espazio erlazioa era sinplista horretan kudeatzeko ausardia duen supergizakia?) jabetuko da honetaz, bitartean, zuria nagusi duen liburuxka betetzeari ekingo dio. Txikitan oster, bestelako harremana zuen literaturarekin eta liburuen azken orria irakurtzeko ohitura zantarra zuen, istorioa kontrola zezakeen ahalguztiduna balitz. Inuzentea.

Etxeko sofán eserita eman dute arratsaldea Aiert eta biek, domeketako film horitako bat ikusten. Bi seme-alaba dituen bikote lesbiano normatibo baten inguruan biratzen du filmak. Istorioaren erdialdera, seme-alaben semen emailea agertzen da eta zakilak ematen dion botereaz, urteetan zehar bikotea osatzen duen emakumeetako baten sexu plazera asetzea lortzen du (jakina baita klitoriaren funtzio bakarra plazera ematea zela aurkitu zutenetik, sarketarik gabeko sexua, sexua ez dela berresten duten mekanismoak jarri behar izan zituztela martxan faloaren boterea bermatzeko, batik bat, publizitate zein filmetan agertzen den propaganda heterosexuala) familiaren oreka hautsiz. Grazia egiten dio eta aldi berean sutan jartzen du begi ertzetik begira duen Aiert, bere lesbianismoa agerian utziko duen keinu baten bila bere gain iltzatuta baititu begiak eta Elene, egoeraz oso kontziente, astebetetz psikoanalizatzen dabilkion pisukidea asaldatzeko keinuak egiten ditu. Zalantza eta kuriositatea badu, galdetzea besterik ez duela uste du Elenek, eta ez astebetetz ikuspuntu erabat maskulinista eta heterosexual batetik eginda dauden film lesbikoen bonbardaketa jasan behar izatea eta momentuoro homosexualitatea ze ondo ikusten duen argi uzteko, Aiertek hartu duen ohitura nekagarri hori.

Hurrengo egunean, metroan ikusiko du berriro apunteak modu berezi horretan hartzen zituen eskuaren jabea, aurreko astean, leku eta ordu berean, lili moredu

soineko horia eta Martens bota beltz zaharrak zeramatzan neska misteriotsua. Hurrengo egunean baita, esku artean duen liburua irakurtzeko ahaleginetan harrapatuko du aipaturiko neskak, eta Elene ekintza disimulatu ortopediko horretan jarri duen posturaren eraginez, aurrez aurre dituen eta irria darien ezpainetatik *Orlando* entzungo du. Irakurria izango du Elenek liburua eta pentsatu barik *ez duzu espero ez zenuen irakurketa bat topatu?* Galdetuko dio eta Anak, hala deitzen baita Eleneren arreta ehuneko ehunean eraman duen neska, *bai, literatura deskribatzeko eta bizitzeko duen modua* erantzungo dio eta handik ordubetera, Abando baino arinagoko taberna bateko barran ikusiko du bere burua, inoiz baino lotsagabeago, berriki ezagutu duen Anarekin literaturari buruz hitz egiten, irakurri dituzten liburuen (bat baino gehiago komunean izango dute) kritikak, gomendioak, espektatibak, gustuko dituzten eta gorroto dituzten genero eta idazleen inguruan hizketan... gustura egongo dira biak, eta begiradan igarriko zaie.

Baina hori astelehen goizean gertatuko da. Oraingoan, domeka izaten jarraitzen du eta filma ikusi ostean, prestatutako infusioa edan eta afaldu barik sartu da logelan, mesanotxearen gainean duen liburua hasteko gogoz.

Amaitu dira pertsianen iluntasunean, ohean etzanik igarotako egunak. Amaitu dira flexoaren argipetan itzarrik emandako gauak pentsatu du bere baitan. *Inkoherentzia delako*. Inkoherentzia dela uste duelako, egunak ematen duen argitasunari bizkar ematea gauaren argi artifizialaren pean bizirauteko. Nahiko luke bere gorputza eta burua konkistatu duen munstroarekin akabatu, altxatzeko grina izan eta bere burua etengabe jazartzen duen mamua hil, baina aldi berean, autoesplotazioaren kontrako estrategiatzat duela uste du, greba. Garuna bateriaz funtzionatzen dion *cyborg*-a izan nahiko luke zenbaitetan, egunean, momentu baten behintzat, bere burua hainbeste ez matxakatzeko, inguratzen dion dena inkontzienteki analizatu behar ez izateko. Ordu pare bateko tregoa emango dion bateria agortua. *Amaitu da greba* besterik ez du pentsatzen. Orain eta duela hilabete.

Ezin izan ditu 20 orri baino gehiago irakurri, eta hartu duen lekuan utzi egin du liburua. Burukoa bizkarraldetik kendu, eta ohearen gainean, lo egiteko posizioan jarri du. Ez da logura eta ez du bero handirik, baina begiak itxi eta goraino bota ditu mantak. Loak hartu behar zionean, nabaritu ditu hilero datorkion bisitariaren kolpeak. Jaiki, eta ohe ertzean paratu da, mina belauen kontra amiltzen utziz. Komuneko bidea hartu du bi minutu geroago, honen lekuko bakarrak zoruko ohol zaharren *kra-kra* hotsak izanik. Odol tanta bi kulero zurian, eta turbulentziak barrenetan ilargi betea komuneko leihotik begira ez duenetik, gaur hiru ziklo. Komunean jesarrita geratu da *dir-dir*-ka dabilen bonbillari begira, azazkalak jaten dituen bitartean. Gutxirako balio izan zaio gurasoek txikitan azazkalak jan ez zitzan, ipurdian zizaretxoak irtengo zitzaizkiola esaten ziotenean pasatzen zuen momentu txarra, atzamarra ahoratu eta denbora gutxira etortzen baitzitzaion horrenbesteko higuindura sortzen zion irudia burura. Kopa hustu, garbitu eta berehala oheratu da, zoruko hotsez gain, tutuerien zaratak lagundu diote ohera oraingoan.

Iratzargailuak esnatu du goizeko 6:01ean (iratzargailua manuala da eta minutuak

jartzeko orduan, hain azkar sakatzen du botoia, beti pasatzen dela 00-tik 01-era, bigarren buelta bat eman du noizbait ordularia 00an jo dezan, baina gauza bera gertatzen zaiola ikusita, amore eman eta 01ean uzten du programatuta), baina ez da t'erdia arte altxatu, eta ohi den moduan, korrika egin behar izan ditu arropa aukeraketa, dutxa eta gosaria: kafe hutsa eta bidean zehar jango duen platanoa. Eguna ez da esnatu oraindik Bilbo Handian; garbiketa-kamioi bat, paseoan dabilzan agure goiztiar bi eta taberna zulora gosaltzera doazen beste hainbeste besterik ez ditu ikusi metrora bidean. Barik-a pasatzerakoan, aurrean duen emakumearen txartelaren saldoari erreparatu dio, 43,07€. Pasatu egin du Elenek berea, eta 0.74€ geratzen zaizkiola jabetu da. *Uste dot inoiz ez dodazala 6€ baino gehiago euki* pentsatu du berekiko. Hiru minutu luze gelditzen dira metroa geltokira hel dadin eta tunelaren iluntasunari geratu zaio begira, metroa noiz iritsiko zain. Hutsuneetan sakonena iruditu zaio amaierarik ez duela ematen duen dioxosozko zuloa, eta barneko organo denak galdu dituela sentitu du momentuan, zerbaiten faltan, hezur-haragizko tunel sakona bilakatu dela. Heldu denean sartu eta ohi ez bezala, jesarleku baten jesarri da. Gorroto ditu atean *pi-pi* hotsak, gorroto du alboan dituen bi tipoen arteko solasaldi ozena, gorroto du atearen ondoan dagoen nerabearen mugikorretik irteten den gusturik gabeko musika komertziala. Gorroto du zarata. Betazal bakoitzean lau tona dituela sumatzen du, nekatuta dago eta klaserako bidea geltokiz geltoki, infinituraino luzatzea nahiko luke. *Santutxu* geldialdia *pi-pi*. Norbait nabaritu du bere aurrean esertzen, Martens bota horiek ezagun egiten zaizkio.

2

Goizeko hamarrek aldera, alboko gelatik datorren piano hotsak esnatu du Elene. / *Giorni* airean. Doinuak munduari buelta eman behar ziola uste zuen; belarrietatik sartu, zainetatik zehar bidaiatu eta oinetatik, sustraiak lez, mundua Ludovicoren partiturekin elikatu. Inoiz bertan egon ez denaren plantaz, poliki gerturatu da aldameneko gelako ate bazterrera. Esku txiki bezain finek, teklaz tekla hipnotizatu dute Elene. Bateria gabe geratu zaio burua, sentsazioak soilik igarri ditzake erritual horren aurrean; lekuz kanpo dagoen *si be mol*-a, inoiz baino gozoago sartu da egunera arte modu bortitz horretan nabaritu ez dituen 6 zentzumenetatik.

Isiltasuna gailendu denean, begira geratu zaio Ana eta *hor geratuko zara?* Horren atzetik, eguzten goizetako larrujotze amaigabe bati hasiera eman diote.

Edozein liburutan gertatzen den bezala, ezinezkoa izan zaio denbora luzez mesanotxearen zatitxo bat hartu duen liburuaren deskribapen denak deszifratzea; horra hor literaturaren magia.

Liburua gainezka duen apalategian utzi eta bertan ikusi du, baztertuta eta gainontzeko liburuen gainean etzanik, hainbeste bilatzen dabilen horizontaltasunean baina besteen gainean azken batean, bere ni-a topatzeko hasi zuen zirriborroz betetako koaderno txikia eta irakurtzeko nahibeharra izan du. Idazteak hori ekarriko ziola uste zuelako; bere burua ulertzea, arakatzea eta etenik gabeko autokritika eraikitzailea. Baita lortu ere. Orriak aurrera pasatu ahala, bertsozik bertso konturatu da misterioaren parte izatetik misterio denak zapartatzen hasia dela.

Isolamendutik eta munstroak hartuta idatziak gehienak, kaligrafia geldoz, urduritasunez, gehiegizko lasaitasunez eta desesperazioz. Denetarik eta edozere irakur dezake; denboraz, memoriaz, beldurraz, maitasunaz, plazeraz, azalaz, naturaz... Irudiz eta irudiz elikatu du nahi gabe bere burua; errealak batzuk, fikziozkoak besteak. Betekada sana. Azken orrira heldu denean *zer da poesia?* Galdera bota du bera ez ezik, inor gehiago biltzen ez duen gelara eta momentu horretan bertan data jarri eta *“Autonota: Haizeak eramango ditu estalkiak, ez egin tira”* idatzi du.

Egunerokoak sortzen duelako poesia, bere erritmoan eta testuinguru baten baitan. Letrez gain, ekintzak, irudiak eta isiltasun tarteak jokoan jartzen direla, isiltasunaren bertsoek edozein esaldi eder eta ulergaitz joko kanpo utz dezaketelako.